

ELKARRIZKETA ELKARTRUKEA

3.MAILAKO IKASLEAK:

- Zuen bikote frantsesekin harremanetan jarri zarete? Eta nola?

1.Taldea (Nerea): Bai, harremanetan jarri gara, sare sozialen bidez, bereziki Instagramen bidez. Baina Whatsappetik ere hitz egiten dute.

2.Taldea (Amaiur): Bai, gutun bidez. Irakasleek web bat sortu dute, "E-twinning "deitutakoa.

3.Taldea (Nagore): Bai, sare sozialaren bidez komunikatu gara, baina batez ere Instagrametik batzuek ez dutelako Whatsapparik.

- Frantziara joateko ideia gustatzen zaizue?

1.Taldea: Bai asko, esperientzia polita iruditzen zaigulako, gogo askorekin goaz.

2.Taldea: Neskei bai (Itsasne,Sara).Mutilei, berriz, (Mikel. U ,Jon) gutxi gorabehera.

3.Taldea: Bai asko, gauza berriak ikasi eta ikusi nahi dugulako.

- Urduri zaudete?

1.Taldea: Bai, zeren gure frantseseko maila ez da oso altua.
*Partaide batek: Urduri bai, niri tokatu zaidan frantsesa ez delako oso jatorra.

2.Taldea: Mikelek ez. Neskak berriz, bai.

3. Taldea: Bai, ez dakigulako frantsesez ondo hitz egiten.

- Zenbat egun zoazte? Eta nola?

1. Taldea: Gu apirilaren amaieran goaz, aste santua eta gero. Beraiek berriz, Maiatzean datoz. Hegazkinez goaz, eta hara iristen garenean, autobus bat gure zain egongo da.

2. Taldea: Apirilaren amaieran aterako dira, eta hegazkinez joango dira Parisera.

3. Taldea: Apirilaren amaieran goaz, eta hegazkinez.

- Zenbat denbora uste duzue iraungo duela bidaiak?

1. Taldea: Uste dugu, 2h eta 30 minutu irauten duela bidaiak. Oso goiz hartu beharko dugu hegazkina, goizeko 8:00etan.

2. Taldea: Hegazkinez joango dira, gutxi gorabehera ordu bat irauten du hemendik aireporturako hegazkinarte, eta iristerakoan, 3 ordu itxoin behar dute, eta buseko bidaia ordu eta erdi irauten du.

3. Taldea: Gutxi gorabehera ordu bat eta erdi egongo gara hegazkinean.

- Non geldituko zarete lo egitera?

1. Taldea: Herri batean geldituko gera, Sourvilla du izena eta Parisetik gertu dago.

2. Taldea: Bidaian ez dute lo egingo, Frantziara iristerakoan haien bikoteren etxean deskantsatuko egingo dute.

3. Taldea: Gure bikotearen etxean lo egiten geratuko gara.

- Zer uste duzue egingo duzuela Parisen?

1. Taldea: Hiritik turismoa egingo dugula pentsatzen dugu. Bertako leku garrantzitsuenak bisitatu, monumentu garrantzitsuak ikusi, ligatu, "Croissant" jan eta argazki asko atera.

2. Taldea: Lehenengo egunean Versaillesera joango dira, baita han dagoen palazio batera ere. Bigarren egunean "Eiffel Dorrean" eta Sena ibaian. 3. egunean Notre Dame eta Louvreko museora joango dira. Eta bukatzeko 4. egunean eskola bisitatuko dute.

3. Taldea: Turismoa egingo dugu eta egun batean gure bikotearen ikastolara joango gara.

- Gustura zaudete tokatu zaizuen bikotearekin?

1. Taldea: *1 Pertsona: Bai, jatorra ematen du, baina izorratzen dit haragia ez jateak. *2. Pertsona: Ez asko, pixkat *desatsegina* iruditu zaidalako. *3 Pertsona: Bai, baina beste kultura bat dauka. *4. Pertsona: Bai, gustura nago.

2. Taldea: Denak oso gustura daude.

3. Taldea: Gutxi gorabehera bai, baina oraindik ez ditugun oso ondo ezagutzen.

- Nola sentitzen zarete bidaiari begira?

1. Taldea: Oso urduri, hizkuntzarengatik batez ere.

2. Taldea: Oso urduri.

3. Taldea: Oso urduri gaude._

- Nolakoa uste duzue izango dela ikastola?

1. Taldea: Aspergarria dela pentsatzen dugu, hau da, oso formalak izango direla hango ikasleak uste dugu. Beraz, "jaleo" asko antolatuko dugu.

2. Taldea: Oso handia eta formala.

3. Taldea: Lauaizetaren antzekoa, baina zorrotzagoak.

4. MAILAKO IKASLEEI:

- Zer nolako esperientzia izan zen zuentzat bidaia hau?

1. Taldea: Oso ona izan zen, primeran pasa genuelako.

2. Taldea: Berezia eta ona.

3. Taldea: Oso ona.

4. Taldea: Desberdina, ona, berria...

- Lagunak egin zenituen?

1. Taldea: Bai, jende asko ezagutu genuen.

2. Taldea: Bikoteekin bakarrik erlazionatu ginen.

3. Taldea: Bai, asko.

4. Taldea: Bai, guztiak.

- Ondo moldatzen zinen frantsesekin hitz egiteko?

1. Taldea: Ez asko.

2. Taldea: Batzuetan bai, besteetan gaztelaniaz hitz egiten genuen.

3. Taldea: Bueno ez asko baina.

4. Taldea: Bai, bestela mimikarekin konpontzen ginen.

- Asko ikasi zenuen?

1. Taldea: Bai, asko ikasi genuen, bereziki entzumen atala.

2. Taldea: Bai.

3. Taldea: Bai.

4. Taldea: Bai, asko.

- Ondo tratatzen zintuen Frantziako familiak?

1. Taldea: Bai, oso jatorrak ziren.

2. Taldea: Bai.

3. Taldea: Bai.

4. Taldea: Bai, oso ondo eta janaria oso ona zegoen.

- Zertan desberdintzen da hango bizimodua eta hemengoa?

1. Taldea: Bertan dena oso goiz da, eskola oso goiz hasten da, eta afaldu ere oso goiz egiten dute.

2. Taldea: Dena 2 ordu lehenago egiten dute.

3. Taldea: Hangoa, hemengoa baino lasaiagoa dela.

4. Taldea: Ordutegiak, eskolatik atera eta etxera joaten ginen.

Kalean ez zegoen ia girorik eta lagunekin egoteko, etxeetan gelditzen ziren. Gainera afaltzen zuten arratsaldeko 19:30etan.

- Berriro joango zinateke?

1. Taldea: Bai, noski.

2. Taldea: Bai.

3. Taldea: Bai.

4. Taldea: Bai, dudarik gabe.

- Hango ikastola hemengoa baino hobea dela uste duzue?

1. Taldea: Ez, desberdinak dira, hau da, irakasleak ez dira klasez-klase aldatzen, ikasleak baizik. Eta isiltasun eta errespetu gehiago dago ikasle-irakasle artean.

2. Taldea: Kasu batzuetan bai, beste gauzetan ez.

3. Taldea: Ez, oso zorrotzak direlako.

4. Taldea: Hobea ez, handiagoa baizik.9

AMAIA IRAKASLEA:

Zein da elkartruke honen helburua?

-Frantsesa praktikatzea, estrategiak barneratzea eta kultura berria ezagutzea.

Noiztik egiten dituzue irteerak?

-Hau bigarren elkartrukea da.

Nola ailegatu zinen Frantziakoekin harremanetan jartzera?

-E-twinning bidez. E-twinning web orri bat da, eta hortik ikastolak proposatzen dituzten elkartrukea etab... jartzen dute.

Zenbat denborarako zoazte?

-Astebetera.

Zenbat irauten du bidaia?

-Hegaldia ordu erdi bat, herrira autobusez ordu erdia eta bukatzeko herritik Bilbora ordu bat, guztira 5 ordu gutxi gora behera.

Nola antolatzen zarete taldeak egiteko?

-Beraz kurtsoa azterakoan gutun bat idatzi zuten ikasleek beraien zaletasunak, gustuak etab... azaltzen. Hortik haurrera Frantziako ikasleek berdina egin zuten eta taldeak egin zituzten.

Frantziara doazen 3. mailako ikasleak gai ikusten dituzu irteera hau egiteko?

-Bai, maia baxua dutelako.

Zer uste duzu ikasiko dutela aste horretan?

-Hiztegi asko eta estrategiak.

Nondik sortu zen elkartrukearen ideia?

-Hobetzeko, denbora gutxi dutelako hemen ikasteko.

Iprensa3

Nerea, Amaiur, Nagore eta Adriana